berrizko UDALA

Iturritza 51 - 48240 Berriz
Tel.: 946 824 036 / 946 824 584
Faxa: 946 827 950
E-maila: udala@berriz.org
P4802300F
www.berriz.org

BIZKAIKO ALDIZKARI OFIZIALA
BOLETIN OFICIAL DE BIZKAIA
BAO. 185. zk. 2008, irailak 26. Ostirala

## LARRIALDIETAKO HARRERAREN ARAUDIA

ZIOEN AZALPENA

Araudi honek helburu dauka larrialdietako aldi baterako harrera-zerbitzua, hots, Gizarte Larrialdietako Etxebizitzetako harrera arautzea, Berriz udalerriko egoera kritikoak artatzearren.

Araudi honen beharra Berrizko Udalak larrialdietako etxebizitza multzoa kudeatzeko zailtasunei erantzuteko borondatetik zein larrialdien aurrean erantzun eraginkorra ematea ahalbidetuko duen lege markoa arautzeko gogotik sortzen da.

Larrialdi egoera bati erantzuteko aldi baterako okupatutako etxebizitzak hartutako pertsonen ohiko etxebizitza bilakatzeko joera dago egun. Egoera hau batez ere gertatzen da arazo ekonomiko handiak dauzkaten pertsonek etxebizitza independente bat eskuratzeko dauzkaten zailtasunen ondorioz, baina era berean, berariazko araudirik ez dagoenez, aplikatu beharreko arautegia zibila delako, eta honek ez du ahalbidetzen zalantzarik gabe Gizarte Baliabidetzat jo daitekeen zerbitzu hori bizkortasunez kudeatzea.

Hortaz, beharrezko da etxebizitza hauen erabilera zerbitzu publiko bat ematearekin parekatzea eta, ondorioz, Administrazio Publikoen eta bereziki udalen zerbitzuak ematea arautzen duen legeriaren araberakoa izatea.

Araudi hau Gizarte Zerbitzuei buruzko urriaren 18ko 5/1996 Legearen eta berau garatzen duen arautegiaren barruan kokatzen da, batez ere gizarte zerbitzuen funtzioak xedatzen dituen uztailaren 30eko 155/2001 Dekretuaren baitan, honen 4).2.1.2. artikuluan, eta Udalen funtzioei dagokienez, zera esaten baita «larrialdietako harrera-zerbitzuaren funtzioa (derrigorrezkoa 20.000 biztanletik gorako udalerrietan) da eragindakoei aldi baterako ostatatze konponbide bat ematea...» eta 4).2.1.3. artikuluan honela jarraitzen du «larrialdietako harrera-zerbitzuak era hauetariko

## REGLAMENTO DE ACOGIMIENTOS DE URGENCIA

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

El presente reglamento tiene por objeto regular el servicio de acogimiento temporal de urgencia para atender situaciones críticas en el municipio de Berriz: el acogimiento en pisos de Emergencia Social.

La necesidad de esta regulación surge, de la voluntad de dar respuesta a la dificultad en la gestión del parque de pisos de emergencia del que dispone el Ayuntamiento de Berriz, y de regular el marco legal que permita dar una respuesta eficaz ante situaciones de emergencia.

Hay una tendencia a que los pisos que son ocupados para dar respuesta temporal a una situación de urgencia/emergencia acaben siendo utilizados como residencia habitual de las personas acogidas. Esta situación se produce, sobre todo, por la dificultad de acceder a una vivienda independiente para personas con serias dificultades económicas, pero también porque, al no haber regulaciones específicas, la normativa aplicable es del ámbito de lo civil y no permite una gestión ágil de lo que, sin duda, debe tipificarse como un Recurso Social.

Es necesario, por lo tanto, considerar que el uso de estos pisos se encuentra afecto a la prestación de un servicio público y debe atender, por lo tanto, a la normativa que regule la prestación de servicios de las Administraciones Públicas, y en concreto de los municipios.

Este Reglamento se enmarca dentro del marco de la Ley 5/1996, de 18 de octubre, de Servicios Sociales, y su normativa de desarrollo, y en concreto en virtud del Decreto 155/2001, de 30 de julio, de determinación de funciones en materia de servicios sociales, que en su artículo 4).2.1.2. sobre funciones de los Ayuntamientos dice que «la función del servicio de acogimiento de urgencia(obligatorio par los municipio de mas de 20.000 hab.) consistirá en ofrecer una solución residencial de carácter temporal a las

berrizko UDALA
Iturritza 51 - 48240 Berriz
Tel.: 946 824 036 / 946 824 584
Faxa: 946 827 950
E-maila: udala@berriz.org
P4802300F
www.berriz.org

bat hartu ahal izango du, ostatatzeko beste modu batzuk artikulatu ahal izateko kalterik gabe:

a) Udalerriko ostalaritza plazak hitzartzea.

b) Harrera-etxebizitzak, hauetan ezinbestean artatu beharko dira etxebizitza eza familia gatazka larri baten ondoriozkoak diren eta pertsonen segurtasun fisikoa edota emociónala arriskuan jar dezaketen kasuak, gainera, etxebizitza hauen kokapenaren isilpekotasuna bermatu beharko da.

c) Aterpeak, etxebizitza finkorik ez daukaten pertsonentzat.

personas afectadas...» y sigue, en el 4).2.1.3. «el servicio de acogimiento de urgencia podrá presentar alguna o algunas de las siguientes modalidades, sin perjuicio de que puedan articularse otras fórmulas de alojamiento:

a) La concertación de plazas hoteleras en el municipio de residencia.

b) Los pisos de acogida, en los que necesariamente deberán atenderse los casos en los que la carencia de domicilio traiga causa de un conflicto familiar grave que pone en peligro la seguridad física o emocional de las personas, debiendo garantizarse la confidencialidad de la ubicación de dichos pisos.

c) Los albergues, destinados a personas que carecen de domicilio fijo.

I. TITULUA

**XEDAPEN OROKORRAK**

I. KAPITULUA

**SARRERA**

**1. artikulua.—Definizioa**

Araudi honek helburu dauka larrialdietako aldi baterako harrera-zerbitzua, hots, Gizarte Larrialdietako etxebizitzetako harrera arautzea, egoera kritikoak artatzearren.

II. KAPITULUA

**ONURADUNAK**

**2. artikulua.—Onuradunen zehaztapena: betekizun orokorrak**

Gizarte Larrialdietako Etxebizitzen erabiltzaile izan daiteke gutxienez 6 hilabete Berriz udalerrian erroldatuta daramatzan edozein pertsona edo familia, baldin-eta Araudi honetako 12. eta 13. artikuluetan xedatutako egoetariko batean badago

TÍTULO I

**DISPOSICIONES GENERALES**

CAPÍTULO I

**INTRODUCCIÓN**

**Artículo 1.—Objeto**

El presente reglamento tiene por objeto regular el servicio de acogimiento temporal de urgencia para atender situaciones críticas: el acogimiento en pisos de Emergencia Social.

CAPÍTULO II

**DE LAS PERSONAS BENEFICIARIAS**

**Artículo 2.—Determinación de las personas beneficiarias: requisitos generales**

Puede ser persona usuaria del servicio de acogimiento en los Pisos de Emergencia Social cualquier persona o unidad de convivencia, empadronada en el municipio de Berriz, con un mínimo de antigüedad de 6 meses, que se encuentre en alguna de las situaciones señaladas en los artículos 12 y 13 del presente Reglamento.

Ez-ohiko eran, zerbitzu hau baliatu ahal izango dute erroldatuta egoteko betekizuna betetzen ez duten pertsonek, baldin-eta ez-ohiko arrazoiek horixe aholkatzen badute eta eurek edota beste instituzio edota erakunde batek eskatzeen badute.

De forma excepcional, podrán acceder a estos servicios las personas que carezcan del requisito del empadronamiento cuando motivos excepcionales así lo aconsejen y a solicitud propia o de otras instituciones o entidades.

**3. artikulua.—Erabiltzaileen eskubide eta betebeharrak**

**Artículo 3.—Derechos y obligaciones de las personas usuarias del servicio**

ESKUBIDEAK:

Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen erabiltzaile zein langileen Eskubide eta Betebeharren Gutuna eta iradokizun zein kexen erregimena onartu zituen apirilaren 6ko 64/2004 Dekretuaren II. Kapituluaren Lehen Atalean ezarritakoaz gain, aldi baterako harrera-zerbitzuen erabiltzaileek larrialdietako etxebizitzak erabiltzeko eskubidea daukate, baita zerbitzu hori EAEko edozein hizkuntza ofizialetan jasotzekoa ere.

DERECHOS:

Además de lo establecido en el Capítulo II, Sección Primera del Decreto 64/2004, de 6 de abril, por el que se aprueba la Carta de Derechos y Obligaciones de las personas usuarias y profesionales de los servicios sociales en la Comunidad Autónoma del País Vasco y el régimen de sugerencias y quejas, las personas usuarias de los servicios de acogimiento temporal de urgencia tendrán derecho a usar los pisos de emergencia, y a recibir el servicio en cualquiera de las lenguas oficiales de la CAPV.

BETEBEHARRAK:

Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen erabiltzaile zein langileen Eskubide eta Betebeharren Gutuna eta iradokizun zein kexen erregimena onartu zituen apirilaren 6ko 64/2004 Dekretuaren II. Kapituluaren Bigarren Atalean ezarritakoaz gain, araudi honetan araututako zerbitzuen erabiltzaileek honako betebeharrak dauzkate:

a) Behar diren kudeaketa administratibo edo-eta judizialak edoeta beste edozein motatakoak egitea zerbitzu hauek erabili behar izatea eragin duen egoera aldatzearren. Gizarte Zerbitzuek komenigarri baderitzote, neurri hauek harreradokumentuan edota honen zati izango den eranskin batean zehaztu ahal izango dira.

b) Ez uztea zerbitzua erabiltzen Berrizko Udalak baimendu gabeko pertsonei, pertsona horiek erabiltzailearekin

OBLIGACIONES:

Además de lo establecido en el Capítulo II, Sección Segunda del Decreto 64/2004, de 6 de abril, por el que se aprueba la carta de derechos y obligaciones de las personas usuarias y profesionales de los Servicios Sociales en la Comunidad Autónoma del País Vasco y el régimen de sugerencias y quejas, las personas usuarias de los servicios regulados en este reglamento tendrán obligación de:

a) Efectuar las oportunas gestiones administrativas y/o judiciales y/o de cualquier otro orden necesarios para modificar la situación que ha provocado el uso de estos servicios. En caso de que, a juicio de los Servicios Sociales, sea conveniente, estas medidas podrán explicitarse en el documento de acogimiento o en un documento anexo al mismo y que formará parte de él.

b) No permitir el uso del servicio a personas no autorizadas por el Ayuntamiento de Berriz,

berrizko UDALA
Iturritza 51 - 48240 Berriz
Tel.: 946 824 036 / 946 824 584
Faxa: 946 827 950
E-maila: udala@berriz.org
P4802300F
www.berriz.org

eduki dezaketen ahaidetasun edo harreman mota edozein izanda ere.

c) Higiezineko osagai komunak (eskailera, ataria eta zerbitzua baliatzeko eta erabiltzeko balio duen beste edozer) kontu, arreta eta ardura handienarekin erabiltzea.

d) Auzotasun oneko jokabide arauak betetzea, bizikidetza ez asaldatzea eta beste erabiltzaile edota auzokideen lasaitasuna urratuko duen ezer ez egitea.

e) Auzokide komunitatearen arauak betetzea, eskaileretako garbiketa barne, komunitateak ezarritako zatietan edo-eta txanden arabera. Betebehar honetatik kanpo geratzen diraizaera ekonomikoko konpromisoei dagozkien arauak.

f) Ez sartzea zerbitzuan aldez aurretiko baimenik gabe ez altzaririk, ez etxeko tresnarik, soilik erabilera pertsonalekoak onartuko dira.

g) Ez sartzea zerbitzuan animaliarik, ezta gai antihigienikorik edota arriskutsurik erabiltzea ere; espresuki debekatuta dago armak edukitzea.

h) Etxebizitzara sartzen uztea Gizarte Zerbitzuetako langileei edota hauek baimendutako beste edonori eskatzen den edozein unetan.

i) Ez garatzea etxebizitzan inolako irabazizko jarduerarik.

j) Ez egitea zerbitzuko giltzen kopiari, ezta beste edonori uztea ere. Erabiltzaileak egonaldia amaitzean giltzak Udaletxean utziko ditu zerbitzua uzten duneko egunean bertan.

k) Ez erroldatzea, ez titularra, ez beste inor Biztanleen Udal Erroldan etxebizitza hori erabilita. Erabiltzaileak Berriz udalerrian erroldatua ez badaude, ez-ohiko harrera bat izateagatik, hauek ezin izango dira erroldatu, ez titularra, ez beste inor Biztanleen Udal Erroldan etxebizitza hori erabilita.

l) Zerbitzuaren helbidearen anonimatua gordetzea.

m) Zerbitzua bizikidetza-unitate desberdinetako hainbat pertsonak partekatu behar badute, garbiketa, higiene, ordutegi eta abarrekoei buruzko bizikidetza kolektiboaren arauak bete beharko dituzte. Guraso

independientemente del tipo de parentesco o relación que tenga con ellas.

c) Usar con toda diligencia, cuidado y esmero los elementos comunes del inmueble tales como: escalera, portal y, en general, de cuanto sirve para el aprovechamiento y disfrute del servicio.

d) Observar las normas de conducta de buena vecindad no alterando el orden de convivencia realizando cualquier conducta que perturbe el sosiego del resto de personas usuarias o vecindario.

e) Cumplir las normas que rijan en la comunidad de vecinos/as, incluida la limpieza de las escaleras en los tramos y/o turnos que estén fijados en la comunidad. Quedan exentas de esta obligación las normas que se refieran a compromisos de tipo económico.

f) No introducir en el servicio, sin autorización previa, ningún mobiliario ni enseres domésticos, permitiéndose únicamente los de uso personal.

g) No introducir en el servicio animales ni almacenar materiales antihigiénicos y/o peligrosos, prohibiéndose expresamente la tenencia de armas.

h) Permitir el acceso al piso al personal de los Servicios Sociales o a otras personas autorizadas por estos en cualquier momento en que así sean requeridas.

i) No desarrollar en el piso actividad lucrativa alguna.

j) No hacer copia de las llaves del servicio ni prestárselas a otra persona. Al finalizar la estancia se deberán entregar las llaves en el Ayuntamiento en el mismo día que se abandone el servicio.

k) No empadronarse, ni el titular ni ninguna otra persona, en el Padrón Municipal de Habitantes en este domicilio.Para el caso de que las personas usuarias no se encuentren empadronadas en el municipio de Berriz por tratarse de acogimientos excepcionales, éstas no podrán empadronarse, ni el titular ni ninguna otra persona, en el Padrón Municipal de Habitantes en este domicilio.

l) Mantener el anonimato de la dirección del servicio.

m) En caso de que el servicio sea compartido por varias personas de distintas unidades de convivencia, se deberán cumplir las normas de vida colectiva en cuanto a limpieza, higiene,

berrizko UDALA
Iturritza 51 - 48240 Berriz
Tel.: 946 824 036 / 946 824 584
Faxa: 946 827 950
E-maila: udala@berriz.org
P4802300F
www.berriz.org

bakoitza bere semealabez zein gelaren eta gauza pertsonalen ordenaz eta garbiketaz arduratuko da. Erabilera komuneko etxeko osagai desberdinen lanak direla-eta (korridorea, atondoa, sukaldea, komuna, balkoiak,…), bete beharreko akordio bat hitzartuko dute.

n) Onuradunen arteko gatazkarik edo desadostasunik egonez gero, Gizarte Zerbitzuek edota, hala badagokio, kontratatutako enpresak egoera aztertu eta behar diren erabakiak hartuko dituzte, erabiltzaileek onartu eta bête beharrekoak.

o) Etxebizitzako gainontzeko erabiltzaileen pentsamendu, iritzi eta ideologia askatasuna eta iritzia emateko eskubidea errespetatzea.

p) Aldi baterako zerbitzua jasotzeagatiko tasa ordaintzea.

horarios, etc. Cada uno será responsable de sus hijos e hijas si los hubiere y del orden y limpieza de su habitación y objetos personales. Respecto los trabajos domésticos de los diferentes elementos comunes de uso (pasillo, hall, cocina, baño, balcones, etc.), llegarán a un acuerdo que habrá que respetar y cumplir.

n) En caso de conflicto o desacuerdo entre las personas beneficiarias, los Servicios Sociales o, en su caso, de la empresa contratada analizará la situación y tomará las decisiones oportunas que se deberán aceptar y cumplir.

o) Respetar la libertad de pensamiento, opinión e ideología del resto de las personas usuarias del piso, teniendo derecho a expresar su opinión.

p) Abonar la tasa por la prestación del servicio de acogimiento temporal

## III. KAPITULUA
## SARBIDE PROZEDURA

### 4. artikulua.—Ohiko prozedura

Prozedurari ekingo zaio interesatuak Berrizko udalaren egitura eskudunari inprimakia normalizatu baten bidez eskatuta, eskatzaileak edo honen legezko ordezkariak sinatuta eta horretarako Udalak ezarritako edozein Erregistrotan edota honakoon erregistro batean aurkeztuta: Estatuaren Administrazio Orokorra, Autonomia Erkidegoetako Administrazioak edo, horretarako hitzarmena egonez gero, Toki Administrazioak osatzen dituzten erakundeak, Posta-bulegoak edo atzerrian Espainiak dauzkan ordezkaritza diplomatikoak edo kontsulatuen erregistroak.

Prozeduraren edozein unetan interesatuak bertan behera utzi dezake eskaera idazki bat aurkeztuta. Honek espedientea amaitutzat jotzea ekarriko du.

## CAPÍTULO III
## DEL PROCEDIMIENTO DE ACCESO

### Artículo 4.—Procedimiento ordinario

El procedimiento se iniciará previa petición de la persona interesada en impreso normalizado dirigido al órgano competente del Ayuntamiento de Berriz, firmado por la persona solicitante o su representante legal y presentado en cualquiera de los Registros de entrada que el Ayuntamiento tiene habilitado para tal fin o en los registros de cualquier órgano administrativo que pertenezca a la Administración General del Estado, a la Administración de las Comunidades Autónomas, y en caso de que exista convenio para tal fin, a la de alguna de las entidades que integran la Administración Local, en las oficinas de Correos o en las representaciones diplomáticas u oficinas consulares de España en el extranjero.

En cualquier momento del proceso, la persona interesada podrá desistir de su solicitud, en cuyo caso deberá hacerlo por escrito. Este hecho conllevará el archivo del expediente.

Iturritza 51 - 48240 Berriz
Tel.: 946 824 036 / 946 824 584
Faxa: 946 827 950
E-maila: udala@berriz.org
P4802300F
www.berriz.org

Segituan Gizarte Zerbitzuetako teknikariek eskaerari buruzko derrigorrezko balorazio-txostena egingo dute, eta bertan honakook jasoko dira:

- Hartu beharreko pertson(ar)en identifikazio datuak.
- Eskatzailearekin normalean bizi diren gainontzeko pertsonen identifikazio datuak.
- Harreraren arrazoiak.
- Hartu beharreko pertsonen egoera ekonomikoa.
- Harrera onartzeko egokitasunari buruzko balorazioa, eta balorazio hau aldekoa izanez gero, harrera iraun beharreko denboraren proposamena.

Seguidamente los técnicos del Servicio Social procederán a elaborar un informe preceptivo y valorativo de la solicitud que determinará:

- Datos de identificación de la persona o personas a acoger.
- Datos de identificación del resto de personas que conviven habitualmente con el/la solicitante.
- Razones del acogimiento.
- Situación económica de las personas acogidas.
- Valoración sobre la conveniencia de conceder el acogimiento y, en caso de que sea positivo, propuesta del tiempo a conceder.

Aipatu txostena eta bertan jasotzen diren kontu guztiak egiaztatzeko behar den dokumentazio guztia espedienteari erantsiko zaizkio. Eskuragarritasunaren arabera eta Araudi honetan adierazitako lehentasun ordena aintzat hartuta, Gizarte Zerbitzuek ebazpen proposamen bat egin eta egitura eskudunari igorriko diote, dagokion Batzordeak aztertu ostean.

Dicho informe y toda la documentación necesaria para acreditar las circunstancias que en él se señalen, formarán parte del expediente. En función de la disponibilidad y aplicando el orden de prioridad que en el presente Reglamento se indica, los Servicios Sociales emitirán una propuesta de resolución que será elevada al órgano competente, previo estudio por parte de la Comisión correspondiente.

Azkenik, egitura eskudunak ebazpen arrazoitua emango du, larrialdietako aldi baterako harrera-zerbitzua baliatzeko eskaera onartu edo errefusatzeko.

Por último, el órgano competente emitirá resolución motivada, estimando o desestimando la solicitud de acceso al servicio de acogimiento temporal de urgencia.

Ebazpena gehienez bi hilabeteko epean eman beharko da, eskaera Udal Erregistroren batean aurkeztu zeneko datatik zenbatuta. Aipatu epea eten egingo da eskaerak zuzentzea eskatzen bada honen jakinarazpena egin eta hau bete arteko aldian edota, aurrekoaren ezean, emandako epe berrian zehar.

La resolución habrá de producirse en el plazo máximo de dos meses desde la entrada de la solicitud en alguno de los Registros municipales. Dicho plazo se suspenderá cuando se requiera la subsanación de las solicitudes por el tiempo que medie entre la notificación y su cumplimiento o, en su defecto, el transcurso del plazo concedido.

Aurreko atalean ezarritako epea igarota berariazko ebazpena eman gabe, eta ebazteko betebeharraren kalterik gabe, eskaera errefusatutzat joko da, interesatuari aukera emateko aukerako berraztertze-helegitea edo administrazioarekiko auzi-helegitea aurkeztu dezan.

Transcurrido el plazo previsto en el apartado anterior sin que se haya adoptado resolución expresa y sin perjuicio de la obligación de resolver, se podrá entender desestimada la solicitud a efectos de permitir al interesado la interposición del recurso potestativo de reposición o contencioso-administrativo.

berrizko UDALA
Iturritza 51 - 48240 Berriz
Tel.: 946 824 036 / 946 824 584
Faxa: 946 827 950
E-maila: udala@berriz.org
P4802300F
www.berriz.org

Edonola ere, ezinbestekoa izango da onuradunak harrera baliatu aurretik I. eta II. Eranskinetan agertzen den Dokumentua sinatzea. Eskatzaileak aipatu dokumentua sinatu ezean, zerbitzuari uko egiten diola ulertuko da.

En todo caso, será imprescindible la suscripción del Documento correspondiente que figura en los Anexos I y II por la persona beneficiaria antes del ingreso. En el supuesto de que el/la solicitante no suscribiera el mencionado documento se entenderá que renuncia al servicio.

**5. artikulua.—Larrialdietako prozedura**

Larrialdi handiko eta presako kasuak artatzearren, Gizarte zerbitzuek zerbitzuan berehalaxe sartzea proposatu ahal izango dute, behin interesatuak «Larrialdietako Etxebizitzan hartua izateko dokumentua» sinatuta, eta gertaera honen berri emango zaio Batzordeari. Segituan 4. artikuluan ezarritako ohiko prozedurari ekingo zaio, behin betiko ebazpena gauzatzearren, hau zerbitzuan sartu eta hurrengo 15 egun naturaletan burutu beharko da.

Baldin-eta larrialdietako prozeduraren bidez zerbitzuan sartu ostean onuradunak espedientearen hasieran edota gauzapenean laguntzeari uko egingo balio edota hura bideratu bitartean ebazpena ezezkoa izan behar dela ondorioztatuko balitz, jakinarazpena jaso eta gehienez 10 egun naturaleko epean zerbitzua uzteko betebeharra jakinaraziko litzaioke.

Aipatutako epean zerbitzua utziko ez balu, erabiltzaileak derrigorrean irtenarazterako prozeduraren izapideei ekingo zaie 11. artikuluan xedatutakoaren arabera.

**Artículo 5.—Procedimiento de urgencia**

Para atender casos de extrema y urgente necesidad, los Servicios Sociales podrán proponer el inmediato ingreso en el servicio, una vez suscrito por el interesado el «documento de acogimiento en Piso de Emergencia» correspondiente, informando a la Comisión correspondiente de tal hecho inmediatamente después se dará inicio al procedimiento ordinario establecido en el artículo 4 para su resolución definitiva, la cual deberá dictarse dentro de los 15 días naturales siguientes a la entrada en el servicio.

En caso de que, tras el ingreso por procedimiento de urgencia, la persona beneficiaria se negara a colaborar en el inicio o trámite del expediente o que durante la tramitación se comprobara que la resolución debe ser negativa, se le comunicará la obligación de abandonar el servicio en un plazo no superior a 10 días naturales a contar desde la recepción de la notificación.

En caso de que no se proceda al abandono en el plazo señalado se iniciará la tramitación del procedimiento para el desalojo forzoso de las personas usuarias en la forma prevista en el artículo 11.

IV. KAPITULUA

**HARRERA ETETEA ETA IRAUNGITZEA**

**6. artikulua.—Harrera aldi baterako etetea**

Dagokion espedientea burutu ostean eta Gizarte Zerbitzuek proposatuta, egitura eskudunak zerbitzuaren aldi baterako etetea erabaki ahal izango du, interesatuari entzun ostean. Aipatu ebazpena onuradunari eta, hala badagokio,

CAPÍTULO IV

**SUSPENSIÓN Y EXTINCIÓN DEL ACOGIMIENTO**

**Artículo 6.—Suspensión temporal del acogimiento**

Tras la instrucción del expediente oportuno y a propuesta de los Servicios Sociales, se podrá determinar la suspensión temporal en la prestación del servicio mediante resolución del órgano competente,

berrizko UDALA
Iturritza 51 - 48240 Berriz
Tel.: 946 824 036 / 946 824 584
Faxa: 946 827 950
E-maila: udala@berriz.org
P4802300F
www.berriz.org

zerbitzua ematen duen entitateari jakinaraziko zaie, legeak ezarritako epe eta betekizunen arabera.

Zerbitzua honako arrazoi hauengatik eten egingo da:

- Ez uztea larrialdietako etxebizitzara sartzen Gizarte Zerbitzuen langileei edota berauek baimendutako beste edozein pertsonari.
- Zerbitzua era desegokian edo gehiegizkoan erabiltzea. Erabilera desegokitzat honakook jotzen dira: bizikidetzaren eta elkarrenganako begirunearen arauak asaldatzea, beste edonori zerbitzuaren helbidea jakinaraztea, kontratuan agertzen ez diren pertsonak zerbitzuan sartzea eta egotea, zerbitzuaren edota auzokide komunitatearen instalakuntzak eta bitartekoak era desegokian erabiltzea, bertako jarduerak asaldatzea, edozein motatako liskarrak sustatzea edo hauetan parte hartzea, beste egoiliarrak edota auzokideak iraintzea, edozer lapurtzea edota norberaren segurtasuna zein beste erabiltzaile edota auzokideena nahita arriskuan jartzea. Gehiegizko erabileratzat honakook jotzen dira: larrialdietako etxebizitzetako ur, gas edo beste edozein hornidurаren gehiegizko kontsumoa.
- Harreraren ondoriozko bi ordainagiriren ordainketa arrazoirik gabe atzeratzea.

Behin ebazpenean ezarritako etenaldia amaituta, erabiltzaileak berriro baliatu ahal izango du zerbitzua, baina honek ez du ekarriko hasieran aurreikusitako egonaldia etenaldiaren proportzioan luzatzea.

Etenaldian zehar erabiltzaileak ez du zerbitzuaren tasa ordaindu beharko, ez bada bizikidetza-unitateko burua dela eta gainontzeko kideek zerbitzua baliatzen jarraituko dutela.

previa audiencia de la persona interesada. Dicha resolución será notificada a la persona beneficiaria y a la entidad prestataria del servicio, en su caso, en los plazos y formalidades exigidas por la ley.

El servicio se suspenderá por los siguientes motivos:

- No permitir el acceso al piso de emergencia al personal de los Servicios Sociales u otras personas autorizadas por estos.
- Hacer un uso inadecuado o abusivo del servicio. Se entenderá por uso inadecuado la alteración de las normas de convivencia y respeto mutuo, la comunicación a cualquier persona de la dirección del servicio, la entrada y permanencia en el servicio de personas ajenas a las que figuran en el contrato, la utilización inadecuada de las instalaciones y medios del propio servicio o la comunidad de vecinos en la que se halle, o perturbar las actividades del mismo, promover o participar en altercados de cualquier tipo, ofender con insultos, blasfemias o cualquier falta de respeto al resto de residentes o vecinos del inmueble, la sustracción de cualquier clase de objeto o poner en peligro intencionadamente la propia seguridad o la de las demás personas usuarias y vecinas del inmueble. Se entenderá por uso abusivo el consumo excesivo de agua, gas o de cualquiera otro suministro de los pisos de emergencia.
- Por la demora injustificada en el pago de dos recibidos por acogimiento.

Una vez transcurrido el plazo de suspensión establecido en la resolución, la persona usuaria podrá acceder nuevamente al servicio, sin que ello suponga una ampliación proporcional del plazo de estancia inicialmente previsto.

Durante el plazo de suspensión la persona usuaria no estará obligada a abonar la tasa del servicio, salvo que se trate de la persona responsable de la unidad convivencial y el resto de miembros siga haciendo uso del servicio.

berrizko UDALA
Iturritza 51 - 48240 Berriz
Tel.: 946 824 036 / 946 824 584
Faxa: 946 827 950
E-maila: udala@berriz.org
P4802300F
www.berriz.org

Etenaldia ebatzita, erabiltzaileak zerbitzua ebazpenean ezarritako epean utzi beharko du, 10 egunetik gorako izango ez dena, beste arrazoirik egon ezean.

Declarada la suspensión, la persona usuaria deberá abandonar el servicio en el plazo indicado en la resolución, que no podrá ser superior a 10 días, salvo que otras razones así lo requieran.

**7. artikulua.—Harrera iraungitzea**

Dagokion espedientea burutu ostean, eta Gizarte Zerbitzuek proposatuta, aurreikusitako data baino lehenago zerbitzua iraungitzea erabaki ahal izango du egitura eskudunak ebazpen baten bidez, interesatuari entzun ostean. Aipatu ebazpena onuradunari eta, hala badagokio, zerbitzua ematen duen entitateari jakinaraziko zaie.

Zerbitzua honako arrazoi hauengatik iraungi egingo da:

- Harrerarako aurreikusitako epea amaitzera.
- Erabiltzaileak uko egitea.
- Heriotza.
- Zerbitzua jasotzea eragin zuen beharraren arrazoia desagertzea.
- Zerbitzua jasotzeko kontuan hartutako datuak gezurrezkoak izatea edota datuak ezkutatzea.
- Zerbitzua jasotzeko betekizunetariko baten bat galtzea.
- Zerbitzuaren jarraipena egiteko eskatutako dokumentazioa ez aurkeztea.
- Fisikoki edo psikologikoki zerbitzuko beste erabiltzaileei edoeta langileei eraso egitea.
- Zerbitzuaren hiru ordainagiriren ordainketa arrazoirik gabe atzeratzea.
- Araudi honetan erabiltzaileei ezarritako beste betebehar batzuk behin eta berriro ez betetzea.
- Zerbitzutik bi egunez edo gehiagotan uztea, ospitaleratzea edota ezinbesteko beste arrazoi bat zuritu gabe.Berariazko txosten tekniko baten bidez zurituko diren egoera berezietan epe hau zabaldu ahal izango da.

**Artículo 7.—Extinción del acogimiento**

Tras la instrucción del expediente oportuno, y a propuesta de los Servicios Sociales, se podrá determinar la extinción de la prestación del servicio antes de la fecha prevista para ello mediante resolución del órgano competente, previa audiencia de la persona interesada. Dicha resolución será notificada a la persona beneficiaria y a la entidad prestataria del servicio, en su caso.

El servicio se extinguirá por los siguientes motivos:

- Finalización del tiempo previsto para la acogida.
- Renuncia de la persona usuaria.
- Fallecimiento.
- Desaparición de la causa de necesidad que generó la prestación del servicio.
- Ocultamiento o falsedad en los datos que hayan sido tenidos en cuenta para la concesión del servicio.
- Pérdida de alguno de los requisitos exigidos para acceder al servicio.
- No aportar la documentación que pudiera ser requerida para el seguimiento del servicio.
- Por agresión física o psicológica a otros usuarios o usuarias y/o a los/as trabajadores/as del mismo.
- Por la demora injustificada en el pago de tres recibos del servicio.
- Por incumplimiento reiterado de otras obligaciones de las personas usuarias previstos en este reglamento.
- Por la ausencia del recurso por periodo superior a dos días y sin que se justifique un ingreso hospitalario u otras razones de fuerza mayor. Este periodo se podrá ampliar en situaciones especiales que se justificarán en el informe técnico correspondiente.

berrizko UDALA

Iturritza 51 - 48240 Berriz
Tel.: 946 824 036 / 946 824 584
Faxa: 946 827 950
E-maila: udala@berriz.org
P4802300F
www.berriz.org

- Araudiaren edozein puntu ez betetzea, honek gainontzeko erabiltzaileak arriskuan jartzea eragin badu.

Iraungitzea ebatzita, erabiltzaileak zerbitzua utzi beharko du ebazpenean ezarritako epean.

- Por cualquier incumplimiento de la normativa con el resultado de haber puesto en peligro a otras personas acogidas en el piso.

Declarada la extinción, la persona usuaria deberá abandonar el servicio en el plazo indicado en la resolución.

## V. KAPITULUA
## ERREGIMEN EKONOMIKOA

### 8. artikulua.—Tasa

Zerbitzu honen erabiltzailek urtero dagokion Ordenantzan ezarriko den tasa ordaindu beharko dute.

### 9. artikulua.—Erabiltzaileen ekarpen ekonomikoa

Erabiltzaileek kopuru honen (300 euro/hilabete) %100a ordainduko dute honako egoera hauetan:

- Euren diru-sarrerak, kide bereko bizikidetza-unitateari dagokionez, indarrean dagoen Oinarrizko Errentaren kopuruaren %150etik gorakoak badira.
- Erabiltzaileak harrera eragin duen istripuaren edo egoeraren ondoriozko gastuak estaltzen dituen aseguru bat kontratatuta badauka, beti ere ostatatze alternatiboa aseguratutako kontzeptutzat har badaiteke.
- Harreran zehar erabiltzailea ostatatze gastuak estaltzeko laguntza publiko edo pribaturen bat jasotzen ari bada. Ondorio hauetarako ez dira kontuan hartuko Udalak berak emandako laguntzak.
- Zerbitzua erabiltzeko eskaera beste instituzio batek egin badu 2. artikuluan xedatutakoaren arabera 2.

## CAPÍTULO V
## RÉGIMEN ECONÓMICO

### Artículo 8.—Tasa

Los usuarios/as de estos servicios deberán abonar la tasa que anualmente se fije en la Ordenanza correspondiente.

### Artículo 9.—Aportación económica de las personas usuarias

Las personas usuarias pagarán el 100% de esta cantidad (300 euros/mes) en las situaciones siguientes:

- Si las personas acogidas tienen ingresos superiores al 150% de la cuantía vigente para Renta Básica para una unidad convivencial del mismo número de miembros.
- Si la persona usuaria tiene contratado algún seguro que cubre los gastos derivados del siniestro o circunstancia que motiva el acogimiento, siempre y cuando el alojamiento alternativo pueda incluirse como concepto asegurado.
- Si, durante el ingreso, la persona usuaria está recibiendo alguna ayuda, pública o privada, cuyo objeto sea cubrir los gastos de alojamiento. No se considerarán a estos efectos las ayudas que se concedan desde el propio Ayuntamiento.
- Si la solicitud de uso del servicio ha sido realizada por otra institución en los términos expuestos en el artículo 2.

Iturritza 51 - 48240 Berriz
Tel.: 946 824 036 / 946 824 584
Faxa: 946 827 950
E-maila: udala@berriz.org
P4802300F
www.berriz.org

Erabiltzaileek kopuru honen %50 ordainduko dute (300 euro/hilabete x 50% = 150 euro) honako egoera hauetan:

- Erabiltzaileen diru-sarrerak, kide bereko bizikidetza-unitateari dagokionez, indarrean dagoen Oinarrizko Errentaren kopuruaren %150ekoak edo txikiagoak badira, baina %100etik gorakoak.

Erabiltzaileek ez dute tasarik ordainduko honako egoera
hauetan:

- Erabiltzaileen diru-sarrerak, kide bereko bizikidetza-unitateari dagokionez, indarrean dagoen Oinarrizko Errentaren kopuruaren berdinak edo txikiagoak badira.
- Harrera pertsona bat eraso fisiko, psikiko, sexual edota beste mota batekotik babesteko egiten ba da, bere diru-sarrerak edozein izanda ere.

Arrazoi desberdinengatik hartutako pertsona edo talde desberdinek zerbitzua partekatzen badute, bakoitzak ordaindun beharko du aurreko irizpideen arabera egokituko zaion tasa.

**10. artikulua.—Zerbitzua erabiltzearen ondoriozko gastuak**

Komunitatearen gastuak zein lokaletan egin beharreko konponketak edota hobekuntzak Udalak ordainduko ditu edo, hala badagokio, zerbitzuak kudeatzeaz arduratzen den enpresak, ez bada azken hauek erabiltzaileek eragindakoak izatea. Era berean Udalak higiezinaren jabetzari edo erabilerari lotutako edozein tasa edo zerga ere ordainduko du, zaborra jasotzeko tasa barne.

